

4. Aitzineuskararen berreraiketa eta egitura

1. Hizkuntzen historiaurrea berreraikitzen.— 2. AEBren berreraiketa

BIBL → Lakarra 2013b.

1. Hizkuntzen historiaurrea berreraikitzen

Euskalaritzan bi garai zeharo ezberdin daude, Mitxelena aurrekoa eta Mitxelena ondokoa, berak ukitu zituen esparru guztietan, baina batez ere euskararen historiaurrearen azterketan. Beldurrik gabe esan daiteke paradigma aldaketa bat gauzatu zuela alor honetan. Aldaketa honetan datza, alegia, hizkuntza aurreratuetan aspaldixko emankor suertatzen ari ziren metodoak gurera ekartzean.

Mitxelenak “berandu jaiotako” neogramatikotzat zeukan bere burua (Mitxelena 1977, *OOCC* VI, 349). Izan ere, neogramatikoei esker hizkuntzalaritza historikoak hizkuntzak berezko duen etengabeko aldaketa aztertzeko tresnak ezarriko ditu: batez ere lege fonetikoak, baita hauen salbuespen asko azaltzeko balio duen analogia ere. Tresna hauekin ondorio sendoak atera ditu eta ateratzen ditu hizkuntzen bilakabideaz, beren arteko loturez, haien jatorriaz, etab.

Metodo konparatuaren sendotasunaren froga ezagunena laringalen hipotesiaren egiaztapena da. Ferdinand de Saussurek —20 urtekin, bere lizentziatura tesian (1879)— orduan ezagun ziren IE hizkuntzetan lekukotzen ez zen hots sail berri bat proposatu zuen IEren berreraiketarako, “laringal” ospetsuak,¹ honen ondorengo hizkuntzen bokalismoan ziren ezberdintasunak azaltzearen. Ondoko urteetan hititera IE hizkuntza zaharrenaren testuak aurkitu eta deszifratu ziren. Saussure hil eta gutxira Jerzy Kurylowiczek (1927) erakutsi zuen <h> bezala transkribatzen den karakterea (hititera idazkera kuneiformeaz dago jasota) hain zuzen laringal hipotetiko haiek agertu behar ziren tokian agertzen dela.

Milaka urtetako historia duten IE hizkuntzetan edota semitikoetan garatutako metodo honek balio unibertsala lortu du azken ia mende eta erdi honetan, are erlatiboki testu gutxi edo berankorrek baino ez dituzten gurea bezalako hizkuntzetan; geroztik kontinente guztietako hizkuntzetan landu da emaitza oparoekin. Funtsean, metodo konparatua estandarra da non-nahi hizkuntzen historiaurrea argitzeko: dela hizkuntzen edo aitzin-hizkuntzen (hemendik aurrera AH) erkaketaren bitartez, dela barneberreraiketaren bidez, hizkuntzalariek hizkuntza bat(zu)en lehenagoko egoerak — inoiz hainbat hizkuntzaren hasierako egoera, familiaren AH— berreraiki ahal izan dituzte.

Tradizio linguistiko aurreratuetan aspaldi arrunta bazen ere, metodo konparatua 75 bat urte beranduago iritsi zen gurera Mitxelenarekin. Aurreko batzuek argi eta garbi

¹ Izenak iradokitzen duenez, laringean ahoskatzen diren hotsak dira laringalak. Indoeuroperaren laringalak H₁, H₂ eta H₃ bezala irudikatu ohi dira, eta eztabaidatua da zehazki zer-nolakoak ziren.

adierazi zuten neogramatikoen ezer irakurtzeko asmorik ez zutela, adibidez Arturo Campión-ek bere *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua éuskara-n* (1884) —bere maisu Bonaparte printzearen ildotik—, eta urte bereko *Orígenes de la raza vasca* doktorego tesian eta euskarari buruzko beste lanetan Miguel Unamunok ere ez zien inolako arretarik jarri, eta horrelatsu garaiko gainerako euskalariak ere. Horrezaz gainera, neogramatikoek nor eta Hugo Schuchardt izan zuten etsairik erraldoiena, orduko euskalariak miresten zutena. Ondorioz, XX. mendean zehar oraindik “neogramatikoen lege hertsietarik urruti pozik bizi ahal izateko tokitzat” zuten euskal arloa Schuchardtek eta haren antzeko ugariak. Ez dago esan esan beharrik oinarri horietatik zer itxaron genezakeen (cf. Mitxelena 1957b: 108).

Mitxelenak tesia (eta, beraz, ondoko argitalpena izan zen *Fonética histórica vasca*, 1961) neogramatikoen postulatuaren gainean eraikitzeaz gain, urte gutxitara *Lenguas y protolenguas* (1963) maisu-lana idatzi zuen, non AH-en propietate eta ikerketek dituzten zailtasunak inon baino argiago azaltzen diren. Esan gabe doa gogoeta horiek zeinen lotuta dauden aipatu FHV-rekin eta *Sobre el pasado de la lengua vasca*-rekin (1964), euskararen diakroniaren gailurrak baino ez aipatzearen.

1.1. Aitzin-hizkuntzen izaera eta egitekoak

“Aitzin-hizkuntza” terminoa bi eratarata erabil daiteke eta *de facto* erabiltzen da: alde batetik, duela anitz (inoiz milaka) urte hitz egiten zen benetako hizkuntza bat da, gero hizkuntza ezberdinetan banatu dena; bestetik, ondorengo hizkuntzetan eta hauen lekukotasunetan oinarriturik berreraikitzen dugun hizkuntza hipotetikoa da, berreraiketaren bitartez egiten diren hipotesien multzoaz osatua.

Beraz, adibidez, “indoeuropea” deituraren bi adiera ditugu: antzina batean gizatalde jakin batek hitz egin zuen benetako hizkuntza, batetik, eta hizkuntza indoeuroparretan oinarriturik adituek berreraikitzen duten hizkuntza hipotetikoa, bestetik. Egia da adituak lehen adierako indoeuropearen bila dabiltzala kostatuta ahala, baina argi daukate, halere, oso urrun daudela benetako indoeuropearara heltzetik.

Halabeharrez, AH berreraikiak benetakoen ordeztan erabili ohi ditugu usu, baina komeni da batzuk besteekin ez nahastea. Laringalen hipotesiak metodoaren sendotasuna frogatu badu ere, ezagunak dira metodoaren mugak ere. AH berreraikiak batzuetan oso sendoak dira: zenbat eta gehiago eta hobeak gure lekukotasunak, teoriak, ahaleginak eta trebezia, hainbat sendoagoak. Alabaina, gaurko baliabideekin ez dago orduko AH hura bere osotasunean berreskuratzerik. Berreraiketak beste edozein hizkuntzak osatzen duen sistema konplexuarekin konparatuta benetako AH-ren irudi kamuts eta motela baino ez digu ematen, eskematikoa, hutsunez bete: besteak beste, orduko hizkuntzaren ñabartasun dialektal eta soziolinguistikotik ezer gutxi berreskuratzen uzten digu.

Eta hori nolatan? Labur esanda, berreraiki daitekeena baino ezin daiteke berreraiki: AH-ren atal osoak (hotsak, gramatika paradigmak, hitzak, etab.) batzuetan desagertu egin dira ondorengo hizkuntzetan aztarrenik utzi gabe eta, beraz, berreraikiezinak dira guretzat. Latinetik zuzenean datorren aitzin-erromantzeak (hizkuntza erromantzeak azaltzeko beharrezko dugun tarteko urratsa) adibide garbi bat eskaintzen digu. Izan ere, nekez irudika dezakegu aukera hoberik eta abantaila gehiago: aurreko egoeraren (latinaren) corpus zabala eta askotarikoa, ondorengo hizkuntza erromantzeen historia aberatsa, ikertzaileen maila handia eta kopuru erraldoia... Hala eta guztiz ere, inor ez da gauza izan erromantze hutsen lekukotasunaren bitartez aitzin-erromantzearen hamar bokalak berreskuratzeke, bederatzi bakarrik baizik, edo deklinabide markak edota aditz-joko aberatsak berregiteke ere.

Zailtasunak zailtasun, komeni da argi uztea hizkuntzalaritza historikoan ezin daitekeela aurrera joan AH-rik gabe —eta, beraz, ezta aitzineuskara (AE) gabe ere—, euskalaritza eta hortik kanpo ere zenbait korrante “alternatibok” horixe aldarrikatzen badute ere. Zergatik? Batetik, berreraikitako AH-ak direlako lekukotasunik gabeko ahozko hizkuntzetara edo garai jakin bateko lekukorik gabeko hizkeretara hurbiltzeko bide bakarrak. Bestetik, berreraiketak eurak ez zaizkigulako berez edo hutsean axola, haien bitartez lor genezakeenagatik baizik. Eta zer da hori? Bada, AH-tik ondorengo hizkuntzetara gertatu diren aldaketak zehazki ezarriaz AH berreraikitzeaz gainera, harengandik abiatuta ondorengo hizkuntzetarako bidea ere egin ahal dugulako. Bestela esanda, AH-ri buruzko hipotesiek ondorengo hizkuntz egoerak hobeto ulertzeko bide emankor eta aberasgarri bat eskaintzen digute. Diakronistak historia du buruan, bilakabidea, eta AH ondoko lekukotasunetan jaso edo jasogabeko garai ezberdinetako aldaketa, irregularitate eta ezaugarri ulergaitz asko ezin antzeman ere litezke AH bera sakon eta zabal ezagutu gabe.

1.2. Berreraiketa

Hots-aldaketa erregularren bitartez lotutako hitz ahaideak (“kognatuak”) baliatuaz berreraiki ohi dira AH-ak. Hauek berez interes urria dute, benetako hizkuntzaren zatikako zirriborro modukoak baitira gehienbat. Zaletuek “nola esaten zuten euskaldunek *ardo* edo *etxe* duela 7.000 urte?” bezalako galderak egin ohi badituzte ere, hizkuntzalariek badakite horrelako galdera zehatzei erantzun garbirik ematea ez dela erraza, beren metodo eta lanabesen mugak ezagutzen dituzten heinean. Esan berri dugunez, AH-ak beste helburu batzuekin berreraikitzen dira, gainera, helburu garrantzitsuagoekin (edo mugatuagoekin, nondik begiratzen zaion): hizkuntzaren bilakabidearen hainbat alderdi argitzea, hots, hizkuntzaren diakronia aztertu ahal izatea, bestelako metodo eta hurbilketek ezin azal ditzaketen bilakabide eta egiturazko irregularitateak azaltzea eta hizkuntz egoera ezberdinetako ezaugarri nagusien lotura sistematikoa egitea, ez anekdotak kontatzea. Honela zioen Mitxelena *FHV*-ren hitzaurrean, lehenago ere irakurri diogun ideia bat berformulatuaz:

Iragan zehazgabeko eta sakontasunik gabeko batean kokatu behar diren hipotesiak egiteak ez dauka zentzurik, haietatik abiatuta gertakari modernoak azaldu daitezkeen heinean baizik (Mitxelena 1977: 12; nik itzul.).

Egokitasun fonetikoaren bitartez AH-ko unitate fonologikoen (inbentarioaren) kopuru eta banaketa erdietsi eta horien eta bestelakoren (fonotaktika eta morfologiaren) ezinutzizko laguntzaz aitzin-morfemen egitura osatzen da, hainbat eta seguru eta zehatzago zenbat eta kognatu ezberdin eta konbinaketa morfosintaktiko gehiago berreraikitzeke gai izan.

Denborarekin hainbat estrategia finkatuz joan ziren berreraiketa egiteko edota aldatzeko, Mary Haas-ek (1969) gogoratu zuenez: (1) aztertzen ari garen hizkuntzaren beste ahaide batekiko erkaketa; (2) AH bera ahaide berri batekin erkatzea; (3) mailegu zaharren erabilera, eta (4) lehendik ditugun lanabesekiko hurbilketa ezberdin, zuzenago edo aberatsagoa.

Euskararen historiaurrerako — “isolatu adibide ezagunena” (Campbell 2012: 24) izanik— ezin baliatu ahal dira (1) eta (2), baina (3)-k garrantzi handia izan zuen aitzineuskara berriaren (AEB) oinarriak jartzerakoan, laster ikusiko dugunez (ik. § 3). Euskararen ez ezik beste hizkuntza batzuetan ere landu da bide hau. Metodo konparatuaren oinarria hizkuntza arteko konparazioak izanik (kanpo-berreraiketa edo berreraiketa klasikoa), maileguen azterketak badu horrekin antzekotasunik: hizkuntz egoera jakin batekin erkatzeke beste bat(zuk) erdietsi nahi dira azken buruan. Alabaina, hizkuntzen

arteko erkaketa hauek AH komuna berreraikitze asmoz eginak ez direnez, ez dira konparaketatzat hartu ohi, ezta kanpo-berreraiketatzat ere, baina sarri mailegatuaren kopuru eta garrantzia hain da larria —batez ere hizkuntza emailearen historiari buruz askozaz gehiago dakigunean, ohikoa denez— eta hainbatekoa barneberreraiketari azterketa modu horrek emandako laguntza, non benetan “berreraiketa mistoa” deienezakeen (cf. Lakarra 2012b): izan ere, barneko erkaketa da berreraikitako hizkuntzaren jatorriari dagokienez, baina kanpoko erkaketa oinarritzko azterketa garatzeko erabili morfemen aldetik; hau da, noski, AE-ren berreraiketa estandarren estatusa (Mixelena 1957a, *FHV*).

2. AEBren berreraiketa

Nous avons vu que la méthode comparative utilisée par le linguiste diachronicien a des règles et des limites très précises, que Meillet a du reste été le premier à formuler de façon systématique. On pourrait maintenant pour conclure se demander s'il existe d'autres moyens que cette méthode comparative pour faire de la linguistique historique. Meillet a pour sa part prétendu que non, en écrivant notamment: “La comparaison est le seul instrument efficace dont dispose le linguiste pour faire l'histoire des langues” [...] “tant qu'une langue est isolée, elle est dénué d'histoire” [...]. Et il donnait notamment l'exemple du basque, qui n'est apparenté à aucune autre langue. Mais depuis, sans qu'on ait réussi à faire sortir le basque de son isolement, certains linguistes comme André Martinet et Luiz Michélena (sic) sont parvenus à reconstituer des stades anciens de cette langue. Ils ont obtenu ce résultat en recourant à ce qu'ils appellent la reconstruction structurale [...], et que, par opposition à la reconstruction comparative, on appelle communément la reconstruction interne (Touratier 1990: 29).

2.1. Aurrekariak

Schuchardt, Uhlenbeck eta batez ere Gavel (1920) bezalako adituek euskararen fonetika historikoa ikertu zuten, baita zenbait berreraiketa egin ere. Hala ere, inolako hertsapenik gabe aritu ziren: hurbilketa beti atomista zen, AE-ren *sistema* berreraikitze inolako asmorik gabekoa. Nahi izan balute ere (Schuchardtek ez zuen AH-etan sinisten), konparaketaren ohiko metodoak erabiliz, hots, egokitasun mota bakoitzeko jatorrizko fonema bat berreraikiz, konplexutasun ikaragarritzko sistema sinesgaitz batera iritsiko ziren. Gavelek, esate baterako, /b^h, d^h, g^h/ herskari ahostun hasperendunak berreraiki zituen, nahiz munduan zehar oso hots bitxiak izan (eta kide ahoskaberik gabe ezinezkoak) eta nahiz euskara historikoan horien arrastorik ez izan.

2.2. Martinet

“Dena denari datxekion sistema bat da hizkuntza” (Meillet, *Introduction à l'étude comparative des langues indo-européennes*, 1903: 407; nik itzul.).

Martinetek euskararen historiaren ikerketaren oinarriak aldatu zituen, bidenabar bezala izan bazen ere. Berreraiketa egiterakoan ikuspegi estrukturalaz aritu beharra aldarrikatu nahi zuen —hau da, ez hots honen edo haren bilakabidea, baizik eta hots sistema osoaren bilakabidea kontuan hartu behar dela (cf. Meilleten goiko aipua)—, eta hori frogatzeko egokia iruditu zitzaion kasu bereziki gaitz bat erabiltzea: euskara. Euskal Herriaren egoerak (elebitasun luzea, euskalkien arteko harreman ugariak) oso zaila bihurtzen zuen aldaera ugarien artean zer den zaharra eta zer berria bereiztea, zer den bilakaera erregularra eta zer den euskalkien arteko harremanen ondorioa edo, bestela esanda, zer datorren AE-tik eta zer den euskalkiz euskalki beranduago hedatua.

Kinka honetan, maileguak euskarri sendoa eskaini zioten, zehazki talderik zabal eta ziurrena: latinetik eta erromantzeetatik etorritakoak. Arrazoia hauxe da: hitz hauetan abiapuntua (jatorrizko forma latinez) eta erromantzeetako bilakabidea, biak ezagutzen ditugu, ondare zaharreko hitzetan ez bezala. Maileguen nolabaiteko kronologia batera ere

irits gaitzke (latin garaikoak vs. erromantze garaikoak bereizi, gutxieneko kontuan) eta, honen bitartez, azken bi mila urte hauetan zehar euskararen barruan gertatutako aldaketa zenbaiten kronologiara ere (7. gaian sakonduko dugu honetan).

Gero datorrena hobeto ulertzeko, Mitxelenak (1963) ezarritako paradoxa antzeko zerbait azaldu behar dugu aurrenik: maileguak zaharrago eta jatorrizko formatik gertuago egongo dira eta, orobat, zaharrago eta aldatuago. Euskal mailegu zaharrenak jatorrizkotik (latinetik) gertuago egongo dira (erromantzezko aldaketa gutxiagorekin); aldi berean, berriz, zaharrago diren neurrian euskararen barnean aldaketa gehiago jasango zituzten. Ikus dezagun adibide batekin: eus. *gerezia* mailegua (< lat. *ceresia*) zaharra dugu zeren eta: (1) lat. /ke-/ zaharretik gertuago baitago erromantzezko bilakabideetatik baino (gazt. *cereza* /θe-/, fr. *cerise* /se-/, etab.), euskarak kontsonantearen belaretasuna gorde baitu, erromantze goiztiarrean txistukari bihurtu zen bitartean: honek esan nahi du mailegu honek lat. *ke* > erromantze goiz. **tze* > gazt. /θe/, fr. /se/... aldaketa gertatu baino lehenago sartu zela gure hizkuntzan; (2) euskaraz aspaldi gertatu zen hitz hasierako *k*- > *g*- aldaketan parte hartu baitzuen.²

Latinetik datozen euskal maileguetan gertakari batek ematen du atentzioa besteen gainetik, zeharo ezohikoa delako Europako hizkuntzetan: latinez herskari ahoskabeaz hasten ziren hitzak euskaraz herskari ahostunaz agertzen dira aldaera zaharretan: lat. *pace* > eus. *bake* (1545, *pake* 1713), lat. *turre* > eus. *dorre* (1202, *torre* XV h.), lat. *cella* /ke-/ > eus. *gela* (1627).

Gertakari bitxi honi erreparatuta aipatu ditugun euskalariak saiatu ziren azalpena ematen. Uhlenbecken ustez (1909-1910) bokal arteko herskari ahoskabearekiko disimilazioz hasierako ahoskabea ahostunduko zen: hau da, *bake*-ren adibidean *k*-rekiko disimilazioz (era trinkoan *p*- > *b*- / *pVpV*, non *p* = edozein leherkari ahoskabe). Baina, batetik, halako disimilazioak ezezagunak dira: ezer disimilatzekotan bokal artekoa ahostuntzea espero genuke, ez hasierakoa; bestetik, garbia da ahostuntzea bigarren silaban herskari ahoskaberik ez duten hitzetan ere jazo dela (*gerezia* < lat. *ceresia* /ke-/, *gela* < lat. *cella* /ke-/, *bilo* < lat. *pilu*...). Honegatik, Gavelek (1920: 314-325) azalpen hori onartu ez eta proposatu zuen hasierako herskari guztiak erregularki ahostundu zirela euskaraz lehen maileguak hartu eta gero,³ zeren eta maileguetan ez eze ondare zaharreko hitzetan ere oso gutxi hasten baitira herskari ahoskabez, eta salbuespen horiek erraz azal daitezke beste era batera (mailegu berriak, fonosinbolismoak...).

Martineten iritiz, oro har Gavelen azalpena arrazoizkoa da: badirudi euskarak garai batean joera handia zuela herskariak hitz hasieran ahostun gauzatuko zen fonema batez bakarrik ordezkatzeko; hitz bukaeran, berriz, ahoskabea baino ez da aurkitzen, eta hitz erdian (guztiz bokal artean) bi fonema agertzen dira, bata ahoskabe (batzuetan

² Jakina, kontuak ez dira beti hain bakunak. Izan ere, tarteko urrats eta fenomeno kontrajarri asko lekukotzen ditugu: esate baterako, *Z zekiürü* gainerako euskalkietako *sekula* baino zaharragoa da, aspaldiko lat. *s* > eus. *z* aldaketaren adibide den heinean, bai eta bokal arteko *l* > *r* aldaketarena ere (cf. beherago); *sekula* forma, berriz, aldaketa horiek amaitu ondoren bertakotu da. Ostera, *Z zelü*-ri bai *gerezi*-ren *k*- > *z*- eta baita *zekiürü*-ren *-l*- > *-r* falta zaizkio, nahiz oraingoan bigarren aldaketa hau baden gainerako euskalkietan (*zeru*). Dakigunez, hizkuntzaren konplexutasun mugagabea ulergarri bihurtzeko modu bakarra trinkotzea da, edozein hipotesik alde batera utzi behar dituen gertakariak alde batera utziz, denen (edo behintzat gehiagoren) berri emango duten hipotesi berriak agertu bitartean.

³ Hau ondo ulertu behar da. Aldaketa erregularrek, Gavelek proposatu zuena bezalakoek, ez dakite maileguen eta ondareko hitzen artean bereizten: erregularrak badira, hitz guzti-guztiak eragingo dituzte. Beraz, Gavelek uste zuen aitzineuskararen ere bazirela /p, t, k/ hasierako hitzak, eta latinetik hartu ziren lehen maileguak eta gero (hau da, aldaketa noiz gertatu zen datatzen ari da) guztiak ahostundu ziren. Honek esan nahi luke, bere hipotesiaren barruan, *pake* > *bake* ez ezik, adibidez (kontuz! hurrengo biak adibide asmatuak dira) **pildu* > *bildu* edo **pegi* > *begi* ere gerta zitekeela.

hasperendun) eta bestea ahostuna. Baina, zergatik? Martineten ustez hitz hasierako ahostuntzea inguruko erromantzeen eragin handiari egotzi behar zaio, baina, eta hauxe da garrantzizkoena, eragin horrek behin betiko aldatuko zuen lehenago zeharo ezberdina zatekeen AE-ren kontsonante sistema.

Zeren eta, lehenagoko sistema ahostun/ahoskabe oposaketan oinarritu izan balitz, zer dela eta bihurtuko zen lat. *p, t, k* > eus. *b, d, g* hitz hasieran? Hortxe dago gakoa: aldaketa hori azaltzeko eta, beraz, antzinako sistema hura ezaugarritzatzeko ahostuntasunaren araberrako oposaketaz beste zerbait behar dela pentsatzean. Zein izan zitekeen, bada, orduko sistemaren giltzarria? Daniera lagun, munduko hizkuntza gehiagotan ezaguna den *fortis* (bortitz) / *lenis* (ahul) oposaketa proposatu zuen Martinetek. Hala bada, garai hartako euskarari bi herskari sail egongo ziren, bortitzak /P, T, K/ eta ahulak /p, t, k/; hona, adibidez, horzkariak:

	kokagune bortitza	kokagune ahula
bortitza /T/	[t ^h]	[t]
ahula /t/	[t _o]	[ð]

Herskari bortitzak kokagune bortitzean (adibidez, hitz hasieran) hasperendun ahoskatuko ziren [p^h, t^h, k^h]; kokagune ahulean (adibidez, bokal artean), berriz, hasperenik gabeko ahoskabeak izango ziren [p, t, k]. Herskari ahulak kokagune bortitzean ahoskabe goxo bide ziren [p_o, t_o, k_o],⁴ eta kokagune ahulean espirante —hau da, frikari— ahostunak [β, ð, γ].

Latinetik hartutako maileguetan hitz hasierako herskariak, latinez ahostun zein ahoskabe izan, biak hots ahularen bitartez islatu ziren AE-z, kokagune horretan *lenis*-a ahoskabe izan arren, bietatik ezin urrunago zegoelako *fortis*-aren hitz hasierako alofono hasperenduna. Bokal artean, berriz, zeinek bere kide hurbila zeukaten: ahoskabeek bortitza (kokagune horretan ahoskabea) eta ahostunek ahula (kokagune horretan ahostuna). Gauzak horrela, hitz hasieran AE-ren herskari bortitzen saila latinezko hitzik gabe geratu zen, sartu ziren mailegu ugariak denak hitz hasierako herskari ahularekin egokitu baitziren AE-z.

Beranduago, inguruko hizkuntzen eraginez, bortitzen saila desagertuko zen.⁵ Desagerpen hori azaltzeko, honako prozesu hau proposatu zuen Martinetek: lehenik hasperentasuna areagotu zen, gero [x-] espirante bihurtuko, geroago hasperen (eta, jakina, hasperena galdu duten hizkeretan galdu):

$$*th- > x- > h- (> \emptyset)$$

⁴ *Goxo* izenondoa ez da zehatz-zehatza, ez digu esaten nola ahoskatuko ziren: aitzitik, *goxo* hitzaren zentzua *goxo* / *bortitz* oposaketan bakarrik islatzen da ongi edo, bestela esanda, *goxo*a izango da *bortitza* ez dena. Oposaketa horren zehaztasunak ezberdinak dira hizkuntzaren arabera. Esate baterako, zapoteka hizkuntzetan (Mexikoko hegoaldean) herskari bortitzak ahoskabe eta luzera handiagokoak dira, eta ahulak ahostun eta laburragoak. Danieran, /p t k/ silaba hasieran (*onset*-ean) hasperendunak dira eta [p^h, t^h, k^h] ahoskatzen dira, eta /b d g/ [b_h, d_h, g_h] (datuok guztiok ingelesezko *Wikipedia*-tik hartuak). IPA-n, kontsonantearen azpian ipinitako borobiltxo horrek C ahoskabea dela adierazten du. Funtsean, beraz, suposa dezakegu danieran ez ezik, txineran ere dauden goxoak bezalakoak ziratekeela: gure belarrientzat, ahostun eta ahoskabearen arteko hots bat.


⁵ Martinetek —eta horrela ondokoek ere— sistematik kanpoko indarren eraginez azaltzen zuen inguruko hizkuntzetan falta zen bortitz hasperenaren galera (**th-* > *h-* > \emptyset -), baina agian hiperkarakterizazio hutsa (**th-* → *h* : **d*^o → *d-*) azalpen nahikoa da; ez dago gehiagoren beharrik, mendeetan mailegatutako [-ahost.] nahiz [+ahost.] sistematikoki ahularen bitartez egokitu ondoren, arazorik gabe, itxuraz.

Bere aldetik, ahulen saila ahostun bihurtuko zen. Honek guztiak azaltzen du euskaraz antzematen dugun herskari ahostun eta ahoskabeen banaketa berezia, hitz hasieran eta hitz bukaeran ahostun/ahoskabe oposaketa noizbait neutraldu zelako aztarna argiak dituena.

Labur bildurik, bi hizkuntz egoera berreraiki zituen Martinetek:

1. AE-ren egoera (“sistema karratua”) non herskariak fonema bina zituzten, bata bortitza eta bestea ahula, eta fonema bakoitzak bi gauzatze: fonema indartsuak kokagune indartsuan alofono hasperenduna eta kokagune ahulean alofono hasperengabea; fonema ahulak kokagune indartsuan alofono goxoa eta kokagune ahulean alofono ahostuna.
2. Ondoko egoera, non hiru gauza garrantzizko gertatuko ziren:
 - a. Kokagune indartsuko herskari indartsuak galdu: $*th- > x- > h- (> \emptyset)$
 - b. Kokagune indartsuko herskari ahulak ahostun bihurtu (kokagune ahulekoekin berdinduz)
 - c. Bokal arteko fortis/lenis oposaketa ahostun/ahoskabe oposaketa gisa berrinterpretatu

Ondorioz, funtsean ahostun/ahoskabe sistema bihurtu bazen ere, aipatutako gertakariengatik ahostun/ahoskabe oposaketa bokal artean baino ez da ageriko egoera berriago honetan; berriz, bai hitz hasieran, bai hitz bukaeran oposaketa neutralduta agertzen da (“erronbo sistema”):



2.3. Mitxelenaren azterketak

Mitxelenak (1951) Martineten lanaren berri eman zuen agertu eta berehala, eta gero gaiari artikulu ezinutzizko bat eskaini zion: “Las antiguas consonantes vascas” (1957). Funtsean, bitan eraman zuen aurrera: alde batetik, Martineten proposamena bermatu eta hedatu zuen, haren bitartez euskal datu gehiago azaltzen zirela erakutsiz; bestetik, sistema osora hedatu zuen, bortitz / ahul oposaketa kontsonante sail guztietan zegoelakoan.

2.3.1. Martineten hipotesia bermatzen

Martinetek gutxieneko datuak erabili zituen bere proposamena lantzerakoan. Mitxelenak, euskal datu zahar eta berriak garaiko edonork baino hobeto ezagutzen zituenez, laster ohartu zen Martineten hipotesiak beste hiru fenomeno ederto azal zitzakeela eta, beraz, alderantzizko norabidean hiru fenomeno horiek Martinetena bermatzen dutela:

- a. Geminatu eta herskari talde ahostunen emaitzak
- b. [f]-ren ondorenak

c. Herskarien grafiak akitanierazko lekukotasunetan

Lat. BB > eusk. *p* hainbat adibidetan ikusten dugu, hala nola lat. *abbas* > eus. *apaiz*, lat. *sabbatu* > eus. *zapatu*, vs. gazt. *abad*, *sábado*. Berdin gertatu zen herskari talde latindar zein erromaniko ahostunetan ere: lat. *ad valle(m)* > eus. *apal*, gazt. zah. *cobdiçia* > eus. *gutizia* vs. gazt. *codicia*. Aitzineuskaran oposaketa ahostuntasunean jarriz gero, ez dago adibide hauek ulertzerik: ahostun bakuna espero dugu geminatuaren zein ahostun taldearen ordeztasun (bb > b, etab.). Ostera, *fortis* / *lenis* oposaketak ederto azal ditzake: aski dugu gogoan hartzea geminatuak luze direla eta, beraz, indartsu; hartara, orduko euskaldunek horrelako latin hitzak erreproduzitu nahi zituztenean⁶ euren sistemako hotsik antzekoenarekin ahoskatu nahi eta *fortis*-arekin ahoskatzen zituzten.

f-aren lekukotasunak ere beste hainbeste erakusten digu. Izan ere, garai batean *b*-ren aldaera zen baita ustez ondareko hitzak diren (nazar / nabar), eta orain, aldiz, *p*-ren aldaera (*alfer* / *alper*, *ifini* / *ipini*). Garai zaharretan, bistan da ahostuntasuna ez zela *b* eta *p*-ren arteko bereizketa garrantzitsua —*f* ahoskabea izanik *p* hautatuko zuten orduko euskaldunek eskura zituzten hotsetan—, baizik eta ahoskera ahula edo indartsua den, eta *f* frikari izanik ahula izan —eta honexegatik *b* hautatu—. Hobeto esanda, ematen du ahostuntasunari erreparatu ez eta berdintsu zitzailea *b* edo *p* hautatu; AE edo euskara zaharra benetako ahostun/ahoskabe sistema izan balitz, [f] batarekin *ala* bestearekin ordezkatu litzateke, baina ez biekin: cf. *Z bago* / gainerakoek *pago* (< lat. *fagu*), Ae *biku* / gainerakoek *piku*, *piko*, etab. (< lat. *ficu*). Biekin ordezkatu izanak berak adierazten digu beste zerbait zegoela oposaketa horren gainetik.

Lekukotasun zaharretako datuak ere, akitanierarenak, alde datoz (cf. 6. gaia). Bi argudio nagusi ditugu: (1) Akitanierazko <TT> eta <CC> grafiak ez dira ausaz jarriak, baizik eta Mitxelenak ikusarazi zigun indartsuen adierazpide bide direla; adibidez, nahiko sistematikoki <CC> grafemarekin idatzi da izen askotxoren -CCO bukaera:⁷ SEMBECCO, SENICCO, ANDRECCO, OMBECCO... Bideabar, <TH> grafiak, bistan denez, indartsuaren alofono hasperenduna islatzen du. (2) Akitanierazko herskarien banaketak erakusten digu *p* bakana zela, ziurrenik *b* ahularen aldaera kokagune indartsuan, adibidez, elkartuen bigarren osagaiaren hasieran: akit. SENIPON- (< **seni* + *bon*; cf. akit. **bon* erro ohikoa).

2.3.2. Martineten hipotesia hedatzen

Martineten hipotesia sistema osora hedatu zuen, bortitz / ahul oposaketa kontsonante sail guztietan zegoelakoan, /h/-az landa. Hala bada, AE-rako berreraikitako kontsonante sistema osoa dugu ondoko taulan:

bortitzak	—	t	k	tz	ts	N	L	R	
ahulak	b	d	g	z	s	n	l	r	h

Hots gehiago ez agertzeak ez du esan nahi ez zegoenik, ezpada ditugun datuekin ezin dela berreraiki. Hala, adibidez, bokalak ez zituen ezta aipatu ere egin (erreparatu 1957ko lanaren izenburuari), begi-bistakoa baita ez direla gehiegi aldatu akitanieratik

⁶ Hau ulertzeko, eta Martineten proposamena ulertzeko berebat, pentsa dezagun nola “entzuten” ditugun eta, beraz, nola ahoskatzen ditugun guk, adibidez, ingelesaren (edo txineraren...) hotsak, ingelesez erdipurdi moldatzen garenok: hain zuzen, ingelesezko hotsak eurak diren bezalaxe ahoskatu ez, eta batzuetan “entzun” ere ez —esaterako, bokalen arteko ezberdintasun (guretzat) nimino horiek—, baizik eta gure hots sistemaren antzekoenak direnekin ordezkatzeko ditugu. Halaxe hitz egiten zuten gure arbaso haiek ere latinaren hotsak erreproduzitu nahian ari zirenean.

⁷ *Otsoko*, *Astoko* eta, jakina, *Eneko*-n ere ageri den bera ez ote den gaude, hots, txikigarri bat (ik. 6. gaia).

aurrera (cf. akit. NESCATO, CISON, SEMBE, UMMESAHAR...). Beraz, AE-n ezberdinak izan zitezkeela pentsatzeko inolako oinarririk ez dago eta, oraingo bostak beren hartan utzi behar: hiru irekiera-gradu, eta luze-labur bereizkuntzarik ez.

Bestalde, gaurko euskararen dauden hotsetatik batzuk hasieratik alde batera utzi zituen:

(1) /P/ ezpainkari bortitza: /p/ hotsak ez zuen izaera fonologikorik, gutxi agertzeaz gainera, agertzen denean /b/-ren alofono gisa baita, adib. txistukari ondoan (akit. ANDOXPON- < *bon; gogoratu gaurko *bada* vs. *ezpada*;) edo, ikusi berri dugunez, elkartuaren bigarren osagaiaren hasieran (akit. SENIPON-).

(2) Sabaikariak: euskara historikoan hots adierazgarriak dira edo automatikoki sortuak (sekundarioak, beraz): adib., batetik, hizkeren arabera *baña* edo *baiña* < *baina*, *ille* < *ile*, *axe* < *haize*, etab. (automatikoak *i* ondoren) eta, bestetik, badira oraindik —gero eta gutxiago, nonbait— *zuria* ‘pertsona faltsua’ vs. *txuria* (kolorea) eta *gizona* vs. *gixona* (Salaberri Ibarlakoaren *VocBN* hiztegian “Homme de petite taille” azaldua) bezalako bereizketak egiten dituzten euskaldunak (adierazgarriak); sabaikariak, hortaz, orduan egotekotan sistema nagusitik kanpo eta horren mendeko gisa leudeke, arlo fonosinbolikoan ziurrenera.

(3) /m/ ere, arrazoi asko dago AE-n ez zegoela uste izateko, maileguetatik eta fonosinbolismoetatik (*mamu* adibide ona da, baita *inguru-minguru* bezalako errepikapenak ere) at, testuinguru sudurkarietan sortzen zen /b/-ren alofono gisa bakarrik baizik (akit. SEMBE < *sen erroa, *b* aurrean ezpainkaritua, adib.).

(4) /j/ eta /w/ irristariak berankorrek dira, era ezberdinetan sortuak; lehenak, aditz zaharretako *e-* aurrizkian izan ohi du iturburu nagusia (**e-torri* bezala, *jarri* < **e-arri*) ; bigarrenak, diptongo zenbaiten hondar zatia ez denean, maileguetan. Nolanahi ere, diptongoak berakontzar ditu oro har (cf. *FHV*), salbu eta agian *au* (cf. *haur* erakuslea, adib.) eta *ai* (cf. *haitz*, adib.), baina nolanahi ere ez AE-koak, ziurrenik.


Nola heldu zen Mitxelena bortitz/ahul oposaketak kontsonante sail guztiak azal zitzakeelako ondoriora? Bada, “erronbo sistema”-tik abiatuta, hau da, beste kontsonanteek ere herskariaren neutraltze puntu berak (hitz hasiera eta bukaera, ozen ondoren eta C ondoren) dituztela ohartzerakoan. Izan ere, Martinetek (1955: 529-530) erakutsi zuen [+/-ahostun] oposaketa kokagunearen arabera neutraltzeko joera (izan) duela euskarak, eta bokal artean baino ez dela gorde:

# —	V — V	— #
b-	-p(h)-	— ⁸
d-	-t(h)-	-t ⁹
g-	-k(h)-	-k

⁸ Ez dago *p*-rik kokagune honetan, salbu eta hitz fonosinbolikoetan (*eup*...).

⁹ Hala ere, amaieran ez dirudi herskaririk izan denik oso berandu arte (eta orduan ere ondoko bokalaren galeragatik): cf. *dut* < *duda*- (Err. *dud/dur*), *duk* < **duga*, etab.; *polit* eta *ausart*, eta *estomak* eta *blok* bezalakoak batik bat, mailegu modernoak dira; *ot-* < *ogi*, *it-* < *idi*, etab. Erdi Aroko konposaketako lehen osagaiko alomorfoak (cf. Artiagoitia 1991).

Bere aldetik, Mitxelenak erakutsi zuen joera bera dagoela beste kontsonante sailetan ere, hala txistukarrietan nola ozenetan:¹⁰



Herskariaren eta txistukariaren azpi-sistemak bat datoz neutraltze puntuetan: *z-* / *-z-* / *-tz-* / *-tz*. Hau da, hitz hasiera-bukaeretan baditugu *sats* eta *zotz*, baina ez ***tsas*, ***tzoz*, eta baditugu *aza/hatza* ‘atzamarra’ bezalako pare minimoak ere. Zilegi da pentsatzea, beraz, herskariena eta txistukariena, biak *oposaketa* bera direla.

Ozenen sailean, dardarkarrietan ahul / indartsu oposaketa egun ere bizirik dago (cf. *ere* vs. *erre*, adibidez), gainerako ozenetan ez bezala (ez dago ***eNe/ene*, ezta ***eLe/ele* oposaketarik). R bukaeran neutraltzeko joera indartsua da (ez al dugu berdin ahoskatzen *ur* eta *lur*, R-rekin, nahiz gero *urik* vs. *lurrik* esan?), baina guztiz burutu gabea: cf. *haur* (erak.) eta *laur* (*lauretan*, ez ***laurretan*), eta *urik* (ez **urrik*), *platera* (ez ***platera*), *plazera/plazerra* erako zalantzak, etab., duela erlatiboki gutxi arte oposaketa hitz bukaeran ere bizirik zegoelako seinale. Dirudienez, erronkarieraz oraindik ere *gaxur* ‘gazura’ (*ur*-etik) eta *dur* ‘dut’ hitzetako /r/ ondo bereizten zen *ar* (*artu*-tik) formaren /R/-tik (*FHV* § 17.6).

Hitz hasieran, aldiz, protesia ezinbestekoa zen, garai bateko euskaldunek testuinguru horretan ahoskatu ezin zezaketela argi eta garbi adierazirik: errom. *ropa* > *arropa*, errom. *ratone* > *arratoi*, etab. Ezin zituzten ahoskatu hizkuntza indoeuroparretan hain ohikoak diren /r/-dun *muta cum liquida* taldeak, eta honegatik ondoko bokala tartekatuz hautsi ohi dira: lat. *granu* (> AE **karanu*, /k/ ahularekin) > eus. *garau*, lat. *talatru* (> AE **talaturu*, /t/ ahularekin) > eus. *daraturu*, lat. *fronte* > eus. *boronte*, etab. Mitxelenak inoiz aipatu arren, garrantzi gutxi eman zaio CrV- soiltzeko beste bide bati (> CVr); adib., hori da errom. *trollo* > eus. *dollor*-en gertatu bide dena: **torllo* > **dorllo*. Aldiz, hasierako herskariaren erorketa ere badago albokariaz osatutako taldeetan: *placet* > *laket*, *gloria* > *loria*, *planu* > *lau*, etab.

/L/ eta /N/-ri dagokienez, bi datu mota erabili zituen:

1. Bokal arteko testuinguruan nola jokatzen duten.
2. akit. eta EA-ko grafietan aurkitzen dituenak.

Bokal arteko estuinguruan *n* eta *l* guztiek ez dute berdin jokatzen. Maileguetan sumatu zuen lehenik eta hobekienik Mitxelenak, baina badira aztarrenak ondare zaharreko hitzetan ere. Ikus ditzagun banan-banan:

/l/ ahula: Lat. *angelu*, *gula* eta *coelu*-tik eus. *aingeru*, *gura* eta *zeru* dugunez gero, *l* > *r* / V — V araua proposatu behar dugu mailegu hauetan gertatutako aldaketa azaltzeko. Hots-aldaketak erregularrak eta salbuespenik gabeak izanik, ondorioztatu behar dugu mailegu horiek garai batean euskaraz *hitz guztietan* gertatu zen aldaketa horren lekuko

¹⁰ Mitxelenaren erronboak AE-koak balira bezala aipatzen dira maiz, baina ez da hala. Martinetek (1955: 548) argi utzi zuen hitz hasierako indartsuen ahultzea latina eta euskara ukipen egoeran jarri zirenetik aurrera gertatuko zela. Berreraikitako sisteman herskari *fortis*-ak eta *lenis*-ak, biak ager daitezke bokal arteko kokagunean ez ezik, hitz hasierako kokagunean ere: sistema karratu bat proposatu zuten, beraz, AE-rako, gero beranduago erronbo bihurtuko dena.

ziurrak baino ez direla. Dena dela, esan dugu ondare zaharreko hitzetan ere badirela aztarrenak: *sari/saldu* bikotea, adibidez. Arauak bikote berezi hori —irregularitasun hori— azaltzeko modua ematen digu: AE-ko erro bi proposatu beharrean (***sar* eta ***sal*), aski da erro bat, **sali*, proposatzea, *l* ahularekin: kodan zegoenean albokaria gorde da (*saldu*), baina bokal arteko testuinguruan *r* bihurtu (*sari*). Bilakabide bat eta bera berreraiki dugu bi bidetatik, era trinkoan honela adierazten dena:

AE l (ahula) > eus. r

lat. *gula* → AE **gula* > eus. *gura*

lat. *l* → AE *l* > eus. *r*

AE **sali* > eus. *sari*

AE *l* > eus. *r*

/L/ bortzitza: Latinez *ll* geminatua zuten mailegu zaharretan, berriz, albokaria dugu, orduko euskaldunek geminatua beren *L* bortitzarekin identifikatu zutelako seinale. Hala bada, lat. *ballena* > eus. *balea* dugu. Honen bitartez azaldu beharko ditugu, hortaz, baita *alaba* bezalako ondare zaharreko hitzak ere (< AE **aLaba*), *l* ahula izan balitz gaur ***araba* baikenuke. Era trinkoan:

AE L (indartsua) > eus. l

lat. *ballena* → AE **baLena* > eus. *balea*

lat. *ll* → AE *L* > eus. *l*

AE **aLaba* > eus. *alaba*

AE *L* > eus. *l*

/n/ ahula: Orobat, lat. *anate* eta *leone*-tik eus. *ahate* (> *aate* > *ate*) eta *lehoie* (> *lehoi* > *leoi*) izanik, *n* > *h* (> \emptyset) araua proposatu behar dugu, eta honek bide ematen digu ondare zaharreko *ardao/ardo/arno* (< **ardano*), *mihi* (< **bini*, non *b* > *m*, ondoko sudurkariak asimilaturik) eta *sehi* (< *seni*; cf. akit. *Seni*-, Lazarraga *senide*, etab.) azaltzeko. Era trinkoan:

AE n (ahula) > eus. h (> \emptyset)

lat. *anate* → AE **anate* > eus. *ahate* > *aate* > *ate*

lat. *n* → AE *n* > eus. *h* (> \emptyset)

AE **ardano* > eus. *ardao* > *ardo*

AE *n* > eus. *h* (> \emptyset)

/N/ bortitza: Latinez *nn* geminatua zuten mailegu zaharretan sudurkaria dugu, ostera: adibiderik politena lat. *annona* > eus. *anoa* “ración de comida, provision(es) de viaje” (*OEH*, s.v.), non lat. *nn* > eus. *n* dugun, baina baita lat. *n* > eus. \emptyset ere. Gauza bera dugu lat. *capanna* > eus. *kapana* (cf. *Kapanaga*). /N/ bortitza behar zuten, hortaz, eus. *arrano*-k eta *anaia*-k, bestela ***arrao* eta ***ahaia* izango ziren eta.¹¹ Era trinkoan:

AE N (indartsua) > eus. n

lat. *annona* → AE **aNona* > eus. *anoa*

lat. *nn* → AE *N* > eus. *n*

AE **arraNo* > eus. *arrano*

AE *N* > eus. *n*

Mitxelenaren proposamena akitanierazko datuek ere bermatzen dute. Ez albokarietak, horrelako adibide gutxi dago-eta, zoritxarrez, baina bai sudurkarietak, <N> vs. <NN> grafien arteko oposaketak adibide aski eta aski koherenteak ditu eta. Eman dezagun adibide erraz bat (sakontzeko, ik. 6. gaia): BONXU izenean jadanik ezagutzen dugun **bon* erroa dago, kodan <N>z idatzia, baina CISSONBONNIS izenean erro bera -*is* lat. deklinabide atzizkiaren aurrean ageri da, bokal artean, eta orduan <NN>z idatzita dago. Nola interpretatu erro beraren idazkera ezberdinok? Lehen kasuan neutraltze puntu batean dugu sudurkaria, gaur ere txistukarietan gertatzen zaigun bezalaxe (*hitz* vs. *hizkuntza*, *hots* vs. *hoskidetasun*, etab.); aldiz, bigarrean bokal artean dago, kontsonante

¹¹ Dena dela, *ahaide* < *anaia* + -(*k*)ide proposatu izan da, konposatu honetan *n* > \emptyset eta, aldiz, oinarrian *n* (*anaia*) nolatan dagoen azaldu gabe bada ere.

arteko oposaketak garbienik ahoskatzen diren testuinguruan, hain zuzen. Honegatik, bokal artean <NN> dago, ez edozein *n*, baizik eta nolabaiteko *n* indartsu garbi bat ahoskatzen zelako seinale ezin adierazgarriagoa.

2.3.3. *Hasperena*

Hasperena ere fonema gisa kokatu zuen Mitxelenak AE-n, bortitz/ahul oposaketa orokorretik kanpo gelditzen zen kontsonante bakarra. Honetan guztiz urrundu zen Gavelengandik: honek uste zuen (cf. 1920: 478) inongo oinarri etimologikorik gabea zela, eta sortzez hain berankorra, non Hegoaldeko euskalkietan ez baitzen inoiz horrelakorik izan. Mitxelenak, Luchairek (1877) bildu lekukotasun akitaniarrak ez eze, Hegoaldeko Erdi Arokoak aintzat harturik —gehi orduantxe argitaratu Lergako inskripzioa (Nafarroa), non *Ummesahar* ospetsua dagoen—, argi ikusi zuen /h/ zaharra zela euskararen eremu historiko osoan. Askotan azpimarratu zuenez, gainera, inguruko hizkuntzetatik (hala latinetik nola zelta zein iberieratik) erabat bereizten zuen ezaugarria zen (“<h> badago euskara da”, entzun genion behin baino gehiagotan). Egia da Nafarroaren zati batean X. menderako galdua zela, baina XIII-XIV. mendera arte erruz lekukotzen da mendebalerago, Araba-Errioxetan eta are Bizkai-Gipuzkoetan ere (cf. 9. gaia).

Hala bada, Mitxelenak *zahar*, *ahuntz*, *zuhur* eta beste *zaar* (edo *zar*), *a.untz* (edo *awntz*, *ajntz*), *zur* eta gainerakoak baino arkaikoagoak direla erakutsi zuen, hots, egoera zaharragoko silaba egitura eta kopurua gorde dutela, *ahate* (< lat. *anate*) eta *ohore* (< lat. *honore*) beren uzkurdurak —*a(a)te*, *ôre*— baino zaharrago diren bezalaxe. Aurrerago joaz, Mitxelenak lau jatorri etimologiko aurkitu zituen /h/ historikoentzat:

- (1) AE-ko leherkari bortitzak hitz hasieran
- (2) *f*- latindar edo erromanikoak
- (3) bokal arteko **n*
- (4) AE-ko **h*

Agerian denez, azkena bakarrik dugu *h* < **h*, baina ez da harritzekoa: Janhunenek (2007) argiro erakutsi duenez, aski arrunta da hasperenak hainbat jatorri ezberdin (“laringal sekundarioak”) izatea, bai uralikoz eta baita beste hizkuntza askotan ere; horrela gertatu da euskaraz ere, noski.

Bestalde, hainbat hasperen etimologiko zahar galdu bide dira historikoki: hasteko, azentu ondoko guztiak (**ardano* > **ardaho* > *ardao*), edo erro berean bi zirenean lehendabizikoak (**hilherri* > Etxep. *ilherri*; *hilerri* geroko berreraiketa etimologikoa dukegu, *hil* baita batez ere narbarmen hitz horretan hiztunentzat). Garai historikoan 2. silaba ondoko hasperena zilegi ez bada ere, akitanieraz ez zen horrela (cf. *Artahe*, *Dunoho*-...), ezta oraindik mila urte beranduago ere: cf. Donemiliagako *Reja*-ko (1025) *Arzanhegi*, *Arbelgoihen*, *Errohet*a edo *Gastehiz* bezalako lekukotasun ugariak, guztiak Arabako herrien izenak.

2.3.4. *Kontsonante sistematik atetiko azterketa eta berreraiketak*

2.3.4.1. *Azentua*

Azentua dugu gairik ilunena AEM-ren berreraiketan. Euskara modernoan dakusagun azentu hedatuena, hitz-azentua ez, baizik eta perpaus-azentua dena, ez da oso zaharra izango, herskarien bilakaera ezberdinak lotuta baitaude hitzeko kokagunearekin,

hots, herskaria hitz hasieran edo hitz barnean egotearekin. Bi proposamen nagusi ditugu, beraz, AE-ren azentuaz, biak azentu demarkatzaileaz (hitz arteko mugak bereizten dituen): Martinetek hitz hasieran kokatua proposatu zuen, herskarien banaketa azaltzeko; Mitxelenak, berriz, hitzaren bigarren silaban proposatu zuen, euskara historikoan hasperenak duen kokagunea azaltzeko (inoiz ez 2. silabatik aurrera eta inoiz ez bi hasperen hitz berean).

Nola azaltzen da hori? Martinetek herskariak azaldu nahi zituenez, lotura ikusi zuen hitz hasierako herskari indartsua hasperen izatearen eta azentuaren artean. Mitxelenak, aldiz, argi zeukan 2. silabatik aurrerako hasperenen desagerpena azentuak erraz azaltzen duela, behin azentuatu eta gero beheraka baitoa indarra, nolabait esanda, eta hasperena indartsu izan.

Geroztik Hualdek (1997a) perpausaren azkenean (“phrase-final accentuation”) jarri du azentu zahar hori; halere, ez du hasperenari buruz Mitxelenak ematen duen azalpena ezertan aldatzen eta, beharbada, ezin pentsa genezake berak proposatua AE-koa zenik, EBZ edo geroagokoa baizik.

2.3.4.2. *Silaba egitura*

Mitxelenak silaba egitura hau proposatu zuen AE-rako, iberieran ikusten zuenetik gertu:

(C) V (W) (R) (S) (T)¹²

Bi murriztapen ezarri zituen: (1) hitz hasierako C (neutralizazioen ondorioz) ondokoetako bat baino ezin daiteke izan: *b-*, *g-*, *s-*, *z-*, *n-*, *l-* (eta neutralizaziorik pairatzen ez duen *h-* ere, jakina); (2) ziurrenik, inoiz ez ziren silaba batean aukera guztiak bete (*geurtz* ‘datorren urtean’ dateke osoena).

2.3.4.3. *Morfemen tamaina*

Morfemaren tamainaz ez zuen sekula zuzenean jardun, baina bai zeharka, iberieraren bitartez. Iberierazko onomastikako elkartu eta eratorrien forma kanonikoa 2 + 2 eta 2 + 1 dela suposatzen du, eta hizkuntza horretan bi litzatekeela erroaren silaba kopuru handiena; horrelako zerbait proposatzen du euskararako ere.

2.3.5. *Mitxelenak berreraikitako aitzineuskararen data*

Mitxelenak berak ezarri zuen berreraiki zuen aitzineuskararen data honako pasarte honetan: “ia hatzamarrekin uki dezakegun egoera batez ari gara, zeren eta bi milurteko, bi milurteko eta erdi gehienez ere, leudekeen gugandik eta oro har finkatzen saiatu garen gertakari eta prozesuetara” (Mitxelena *FHV* 559; nik itzul.). Honek kokatzen du Mitxelenaren aitzineuskara —aitzineuskara modernoa (AEM)— era kristauaren hasieran (zero urtearen bueltan) edo 500 bat urte lehenago gehienez. Honegatik esan dezakegu oro har erromatarrak hona iristean hitz egiten zen hizkuntza dela AEM.

Bi argudio zituen datazio hori egiteko: batetik, latinetiko mailegu zaharrenek izan zuten bilakabidea, sistema oraindik ere indartsu/ahul oposaketan oinarritzen zela dioskutenak; bestetik, “erronbo sistema” deritzaguna, alegia, posizioaren araberrako

¹² C = kontsonante, V = bokala, W = irristaria, R = ozena, S = txistukaria eta T = herskaria.

kontsonante indartsu eta ahulen neutralizazioak akitanieran lekukotuak daudela, hots, K.o. I-III. mendeen artean (ikus 6. gaia).

2.3.6. Mitxelenaren berreraiketaren ondorioak

Esan dugu hipotesien indarra beren emankortasunean datzala. Berreraiketaren indarra etimologiatan neurtzen da: berreraiketa emankorrek etimologia berri asko dakartzate berekin; berreraiketa antzuek bat ere ez. Zergatik? Ba, berreraiketak aitzin-hizkuntzaren mugak ezartzen dituen neurrian, muga horien barteian sartzen ez diren formak azaldu behar direlako.

Alde batetik, Mitxelenak ezarri zuen AEM-aren hotsak zein ziren eta zein ez. Hortaz, fonema horiez beste batzuk dituzten hitzak nola edo hala azaldu beharko dira: batzuk mailegu izango dira (a); beste batzuk fonosinbolismoren esparrukoak (b); bestetan, hots-aldaketa berriak proposatu beharko dira (c):

(a) /f/ *alfer, alper* < *-ber? cf. *Z áuher* okz. *aufó, aufié*

(b) /p/ *porrot, putz, parrast*

(c) /m/ *b > m / —Vn mihi < *bini*
*mb > mm > m seme < *sembe*

Bestetik, Mitxelenak ezarri zuen AEMaren silaba egitura eta morfemen tamaina zein ziren (eta zein ez, beraz). Hortaz, silaba egitura hori edota morfemen tamaina hori ez duten hitzak ere nola edo hala azaldu beharko dira:

- fonosinbolikoak *plisti-plasta*
- forma konplexuak *arrats-alde, da-tor-ki-gu-lako*
- maileguak *polit, ausart...*

Hain da indartsua hori, eze hitz batzuetan (*endore, errexal...*) Mitxelenak (1964: 55-56) argi baitzeukan maileguak izan behar zutela, nahiz eta erdarazko zein formatatik datozen jakin ez; zergatik eta “arrazoi formalengatik”, zehazki euren tamaina (bi silabatik gora) eta hitz konplexu gisa euskararen barnean zatikatzeko ezintasunagatik.

Honegatik ere, berak egin edo balekotzat emandako etimologia batzuk azalpenik gabe geratu zirelarik, Lakarrak azaldu nahi izan zituen, aitzineuskararen sakontzeko asmoz hasi zenean: **ardano* zer izan daitekeen, eta hasieran mailegutzat jo zuen (< gazt. *arándano*), baina geroago ondare zaharreko osagaiez eratutako forma konplexuagotzat jo du (< **edaradano* ~ eus. **dan*). Etimologia bata ala besteak, egiantzekotasun gehiago zeinek duen, honek ez digu orain axola (hurrengo batean eztabaidatuko dugu), baizik eta ideia honi begiratzea: aitzineuskararen teoriak aurrez esaten dituen hotsak edota forma ez duten hitzek azalpena behar dutela.

2.4. Ondoko ikerketak

Mitxelenaren proposamena paradigma aldaketa bat izan zen, baina, tamalez, haren ondoan ez zen aurrerapen handirik izan, dena esanda bailegoan. Halere, izan badira hutsune nabariak: Guiter-en (1989) saio txikia alde batera utzita, ez dago ezer aldaketen kronologiaz, eta ez dugu gehiegi aurreratu mailegu geruzak identifikatzeko bidean (ik. 7. gaia), besteak beste. Halaber, morfologia historikoan aurrerapenak egin badira ere,

proposatu diren egoera zaharrak zeri dagozkion (aitzineusarari? Euskara Batu Zaharrari? Erdi Aroko euskarari?) ez da zehaztu gehien-gehienetan.

Dena dela, bi saio izan dira AE-ko herskariak Martineten proposamenaz bestela azaltzen (§ 2.4.1) eta, bestalde, bada hemen erreseinatzea merezi duen lanik morfosintaxiaren berreraiketan, geroko ikerketetan izango duten garrantziagatik baino ez bada, behintzat.

2 4.1. Herskariak bestela azaltzen

Herskariak azaltzeko bide berri bi proposatu dira: Trask (1985) eta Hualde (1997b). Trasken garrantzi handia eman zien neutralizazio batzuei, *lenis / fortis* sistema “egiazko” batean ezinezkoak (hizkuntza zapoteketan, adibidez), bere ustez: *beg(i) + gain > bekain*, *erreg(e) + bide > errepide*, *ez dator > eztator*, lat. *sabbatu > eus. zapatu*. Honetan oinarrituta, askoz sistema bakunagoa proposatu zuen, kontsonante sail bakarrekoa:

p	t	k	s	ś	N	l	R
---	---	---	---	---	---	---	---

Testuinguru batzuetan (bokal artean, nagusiki) kontsonante geminatuak agertuko lirateke (*pp*, *ss*, *nn*, etab.). Proposamen honek duen ahulgunerik handiena datuen kronologian datza: AE-ko sistemaren ezaugarriak askoz geroagoko berrikuntzetan aurkitu nahi izan ditu: *bekain* eta *errepide* ezinezkoak dira AE-n, orduan ez baitzen herskaririk morfema bukaeran; bestela esanda, elkartuaren bilguneko hots-aldaketak Erdi Arokoak dira: akitanieran ez da horrelakorik. Antzera esan beharko da [*ez + adizkia*] konbinaketaz, partikula hori **eze* baitzen antzina.

Gainera, azalgabe uzten ditu hasieratik egin ditugun galderarik gaitzenak: Nola azal hitz hasierako herskariak euskaraz bakarrik ahostuntzea, eta ez erromantzeetan? Nola bokal artekoak euskaraz bakarrik bere hartan egotea, eta ez erromantzeetan? Zer dela eta hauetan geminatuak ahostuntasuna mantentzea, baina ez iraupena, eta euskaraz alderantziz gertatzea? Trasken proposamena Hurch-ek (1991) eztabaidatu zuen; baina Trasken berak atzera egin eta 1997ko liburuan (124, etab.) Mitxelenaren sistemara bihurtu zen.

Hualdek garrantzi handia ematen die kontsonante ondoko posizio askotan gertatzen diren neutralizaziei, *haritz + -di > harizti*, *ardan + -tegi > arandegi* edo *mendi-tik + dator > menditi tator* bezalakoei. Bere ustetan, datuen arabera ez da herskari sail bietan AE-tik gaurko euskarara funtsezko aldaketarik proposatu behar. Aski da aldaketa bakarreko hipotesiarekin: C ondoko asimilazioen ondorioz, hitz hasierako kokagunean [+/-ahostun] oposaketa galtzeko zorian izango zen garai batean, eta gero, alboko hizkuntzen eraginez, oposaketa berriro indartu da.

Berriro ere datu asko ez dira AE garaikoak (ezta EBZ-ekoak ere), baizik eta Erdi Arokoak eta are beranduagokoak (*menditi tator*, adib., *-tik < -ti + -ka* etimologia onartzen badugu); berebat, hitz hasierako ahostuntzeari zein geminatuen bilakabideari buruzko galderak erantzun gabe gelditzen dira.

Laburbildurik, bi proposamenok, oro har, erantzuten ez dituzten galdera zaharrak eta erabiltzen dituzten datu berankorrek alde batera utzita ere, Mitxelenaren proposamenak baino azalpen botere txikiagoa dute (herskariak bakarrik azaldu nahi dituzte), eta ez dute datu berririk azaltzen (hau da, etimologia berririk ematen), ez galdera berririk erantzuten. Beraz, egiantzekoak balira ere, ez guke askorik irabaziko.

2.4.2. Morfosintaxiaren berreraiketa

Ia beste edozein familia eta hizkuntzatan legez, berreraiketa atzeratuago dabil morfosintaxian. Izan ere, berreraiketa fonologikoan erraz antzematen den unitateen arteko lotura eta antolamendua nekez aurki genezake morfosintaxian, eta fonologian ere garai ezberdinetako osagaiak atera bazaizkigu, zer esan urrutitik ere horrelako barneko batasunik ezin izan dezaketen eratorpen atzizkiez,¹³ aditzaren plural markez (cf. *gaitean*, *gara* vs. *gatoz*, *gabiltza*) edota deklinabidearen 1. zein 2. mailako osagaiez eta horien konbinaketaz.

Dena dela, morfologia diakronikoan Schuchardten eta Lafonen (1947, 1999) izenak ezinbestean aipatzekoak dira, jakina (Uhlenbeck-ez, ik. 5. gaia). Halaber, ezinutzizkoak dira Mitxelenaren beraren hainbat lan, berariaz morfologiazkoak izan ez arren, *FHV* eta *Apellidos Vascos* bezala, eta baditu han-hemen ohar interesgarriak, atzizkien formaz, postposizioez eta aditzaren historiaz, besteak beste.

Alabaina, Trasken aditzaren egituraren eta sintaxiaren historiari buruzko lana (Trask 1977) izan liteke garrantzizkoena azken 60 urteotan, argi utzi batzuen *dator*, *dakar*, eta abarretako *d-* hori nozbait ez zela ez pertsona, ez denbora-marka, aspektuarena baizik; eta ezkerretara ageri zela, aurrizki modura, ez eskubitara, atzizki modura, euskaraz jakintzat emango genukeen bezala. Agerian jarri zuen, beraz, hau ez datorrela bat hizkuntza eransleei dagokien SOV egiturarekin, baizik eta oso bestelako VO batekin (cf. gero Gómez 1994 eta Gómez & Sainz 1995). Horrezaz landa, artikulu berean datiboaren berankortasuna eta ergatiboaren jatorri-aukerak ere argitu zituen, ondorengo edozein morfosintaxi lanen abiapuntu.

BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA

- Artiagoitia, Xabier, 1991, "Sobre la estructura de la sílaba en (proto)vasco y algunos fenómenos conexos", *ASJU* 24-2: 327-349.
- Bueno, A., 2006, "Atzizkiak aztergai autore ezberdinen begiradapean", in J.A. Lakarra & J.I. Hualde, *R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*, Gasteiz: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia: 921-948.
- , 2011 [2007], "Nominalizazio atzizki deitutakoen azterketa historikoa eta morfologikoa", in J.A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell, *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra (Gasteiz, 2007ko urriaren 8tik 11ra)*, Bilbo: UPV/EHU: 191-200.
- Campbell, L., 2012, *Historical Linguistics: An Introduction (3rd Revised edition)*, Edinburgh: Edinburgh University Press.
- Gavel, H., 1920, *Éléments de phonétique basque* (= *RIEV* 12), Paris: Champion.
- Gómez, R., 1994, "Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra", in J.-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres*. Baigorri: Izpegi, 93-114.
- Gómez, R. & K. Sainz, 1995, "On the Origin of the Finite Forms". L. Trask, J. I. Hualde & J. A. Lakarra, *Towards the History of the Basque Language*, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 235-274.
- Güiter, H., 1989, "Elementos de cronología fonética del vascuence", *ASJU* 23, 797-800.
- Haas, M., 1969, *The prehistory of languages*. Mouton.
- Hualde, J. I., 1997, "Zerbait gehiago euskal azentubideen historiaz", *ASJU* 31-2: 425-445.
- , 1997b, "Aitzineuskararen leherkariak", *ASJU* 31: 2, 411-424.

¹³ Nabarmena da eratorpenaren hedadura fenomeno berantiarra dela, eta literatur euskararena neurri handi batean: ikus de Rijk (1991), Lakarra (1997a), Sarasola (1997) eta Bueno (2006, 2011).

- Hurch, B., 1991, “Sobre la reconstrucción del euskera. Observaciones a Trask”, in J.A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz, *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Donostia: GFA. 2: 607-614.
- Janhunen, I., 2007, “The primary laryngal in Uralic and beyond”, in *Sámit, sánit, sánehámit. Riepmočála Pekka Sammallahtii miessemánu 21. beaivve 2007. Suomalais-Ugrilaisen Seuran Toimituksia* = Helsinki: *Mémoires de la Société Finno-Ougrienne* 253: 203-227.
- Lafon, R., 1943, *Le système du verbe basque au XVIème siècle*. 2. arg. Elkar, Donostia, 1980.
- , 1999, *Vasconiana*, Iker 11, Euskaltzaindia. Bilbo.
- Lakarra, J. A., 2012b, “Mailegaketa eta berreraiketa euskararen historiaurrearen ikerketan”. I. Igartua, *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza: 17-74.
- , & J. I. Hualde (arg.), 2006, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask* (= ASJU XL, 1-2), UPV/EHU, Bilbo.
- Luchaire, A., 1877, *Les origines linguistiques de l'Aquitaine*. Pau.
- Martinet, A., 1950, “De la sonorisation des occlusives initiales en basque”, *Word* 6, 224-233. (= “La reconstruction structurale: les occlusives du basque”, in *Économie des changements phonétiques. Traité de phonologie diachronique*. Francke, Berne 1955, 370-388).
- Meillet, A., 1925, *La méthode comparative en linguistique historique*, Paris. Berrarg. 1970. (= *Metodo konparatzailea hizkuntzalaritza historikoan*, (Koldo Mitxelena Katedraren Argitalpenak 2), Bilbo: UPV/EHU, 2001. M^a J. Kerejeta eta B. Urgellen itzulpena).
- Mitxelena, K., 1951, “La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet”, *BAP* 7. Berrarg.: *OCC* VII, 33-46.
- , 1957a, “Las antiguas consonantes vascas”. Berrarg.: *SHLV*, 166-189.
- , 1957b, “Basque et roman”. Berrarg.: *SHLV*, 106-115.
- , 1961/1977, *Fonética histórica vasca*, 2. arg. zuzendu eta emendatua, ASJU-ren Gehigarriak 4, Donostia.
- , 1963, *Lenguas y protolenguas*. Berrarg.: ASJU-ren Gehigarriak 20, Donostia 1990.
- , 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Berrarg.: J. A. Lakarra, & I. Ruiz Arzalluz (arg.), 2011, *Luis Michelena. Obras completas V*. Bilbo: UPV/EHU, 1-115.
- Rijk, Rudolph P. G. de, 1991, “Deux suffixes capricieux: -pen et -men”. J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz, *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Donostia: GFA. 2: 709-752.
- Trask, L. R., 1977, “Historical syntax and Basque verbal morphology: Two hypotheses”, in Douglass et al. (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*. Reno, 203-217.
- , 1985, “On the reconstruction of pre-Basque phonology”, in J. L. Melena (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. Gasteiz, 885-891.
- , 1997, *The history of Basque*. Londres: Routledge.
- , 1998, “The typological position of Basque: then and now”, *Language Sciences* 20, 313-324.
- Uhlenbeck, C. C., 1909-1910, “Contribution à une Phonétique comparative des dialectes basques [G. Lacomberen itzulp.]”, *RIEV*: 1909: 1465-1503; 1910: 1965-1120.
- , 1942, “Les couches anciennes du vocabulaire basque”, *Eusko-Jakintza* 1 [1947], 543-581. *Nederlandsezko orijinalaren itzulpena* (G. Lacombe).